



1. gaia

Dopina eliteko kirolean

90eko hamarkadaz geroztik, eliteko kirolarien artean dopin-kasu entzutetsu ugari ezagutu ditugu. Esate baterako, txirrindularitzan zein atletismoan kirol izar anitz daude susmopean, eta batzuk zigortuta ere bai. Zein da horren guztiaren erantzulea? Kirolarien garaipen-gose aseezina, kirol-enpresa edota babesleentzako etekinak lortu beharra, gizartearen arlo guztietan dagoen lehiakortasuna?

Egitekoa

Albistearen gaia kontuan hartuta, informazio-aldizkari baterako **artikulua** idatzi behar duzu. Idatzi horretan, proposatutako gaiaren aurrean duzun **iritzia** azaldu behar duzu eta berau **arrazoitu**.

Gutxienez, **300 hitz** idatzi behar dituzu.

Irakurri duzun pasarteari buruz iritzia emateko eta gaia garatzeko, ondoko puntu hauek ere erabil ditzakezu:

- Dopinerako substantziak: estimulatzaileak, esteroideak, hormonak...
- Dopinak osasun-ondorio larriak eragin ditzake, baita heriotza ere.
- Kirolaren atzetik industria-sektore garrantzitsua dago.
- Dopinak muga fisikoak gainditzen laguntzen du.
- "Pasta eta txuleta" janda, nekez igo daitezke Tourreko mendateak ziztu bizian.
- Dopinak kirolaren balioak astindu ditu: esfortzua, aurkariarekiko begirunea, lehia garbia...
- Hain larria ote da arazoa?
- Zer egin daiteke?

